**Kudeaketari buruzko txostena**
***Informe de Gestión***

**MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES***

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

## I. Negozioen bilakaera

BEAZ, S.A.U., Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren menpeko foru erakundea da, eta Bizkaian jarduera ekonomikoa haz dadin eta kalitatedun lanpostuak sor daitezen lanean ari da.

Helburuok lortzeko enpresa ekimen berritzaile berriak sustatzen ditu eta Bizkaian dauden enpresen lehiakortasuna hobetzeko bere ekarpena egiten du, hazkunde, berrikuntza eta nazioartekotze gaietan dituzten erronketan laguntza emanez.

Testuinguru honetan Sozietatearen ikuspegia epe ertainean Bizkaiko ekintzailetza eta berrikuntza ekosistemako erreferentziako eragile bezala indartzean oinarritzen da. Horretarako proiektu berritzaile gehiago, eta kalitate handiagokoak, definitzen eta finkatzen lan egiten du, lurraldean lanpostu kualifikatuak sor daitezen eta lan-dinamikek enpresen eta sektoreen errealitate eta beharrizanak egunero-egunero ezagutu ahal izateko (adimen lehiakorra) aukera emanez, berton eta nazioartean aukerak bilatuz eta bideratuz eta lurralde oreka aintzat hartuta.

2015-2019 esparru estrategikoaren barruan, bere jarduera jokatzeko ardatz hirukoitz batean burutzen du: funtzionala, sektoriala eta lurraldearena.

Ardatz funtzionalean hauek dira gai nagusiak:

- Proiektu berritzaile berriak eta berrikuntza erronkak, nazioartekotzea eta hazkundea (Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza Programen kudeaketa eta zerbitzu osagarriak).

- Ekintzailetza eta berrikuntza sistemako beste eragile batzuekiko lankidetza.

## I. Evolución de los negocios

BEAZ, S.A.U., es la entidad foral dependiente del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, que trabaja por el crecimiento de la actividad económica y la creación de empleo de calidad en Bizkaia.

Trata de lograr estos objetivos mediante la promoción de nuevas iniciativas empresariales innovadoras y contribuyendo a mejorar la competitividad de empresas existentes de Bizkaia acompañándoles en sus retos de crecimiento, innovación e internacionalización.

En este contexto, la visión de la Sociedad a medio plazo se basa en fortalecerse como agente referente del ecosistema de emprendimiento e innovación de Bizkaia, contribuyendo a la definición y consolidación de más proyectos innovadores, de mayor calidad, que generen empleo cualificado en el territorio, con unas dinámicas de trabajo que permitan estar al día de la realidad y de las necesidades de las empresas y de los distintos sectores (inteligencia competitiva), buscando y facilitando oportunidades a nivel local e internacional y cuidando el equilibrio territorial.

Dentro del marco estratégico 2015-2019, despliega su actividad en un triple eje de actuación: funcional, sectorial y territorial.

En el eje funcional, se centra en:

- Nuevos proyectos innovadores y retos de innovación, internacionalización y crecimiento (gestión de Programas de ayudas de la Diputación Foral de Bizkaia y servicios de apoyo).

- Colaboración con otros agentes del sistema de emprendimiento e innovación.

Ikuspegi sektorialari dagokionez, helburutzat hartzen direnak lau merkatu-multzotan segmentatu dira, espezializazio handiagoa eta haietako bakoitzean adituak diren bitarteko eragileekin elkar-eragin handiagoa lortu ahal izateko.

Azkenik, lurralde ikuspuntutik, Bizkaia orekatua lortu nahi da eta, horretarako, kontuan hartu behar da eskualde bakoitzeko errealitatea eta haietako bakoitzean egokia den hurbiltze-estrategia erabili, bertan lan egiten duten eskualdeko eragileekin batera jardunez.

2017. urtean lanean jarraituko dugu lau helburu estrategikotan.

## 1. ekite-ardatza: Ekintzaileei eta enpresei laguntzea hazkunderako dituzten helburuetan.

BEAZ, S.A.U.-k, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa berritzaileen sorkuntza eta hazkunderako dauzkan diru-laguntza egitarauen parte-hartzaile nagusia denez, 2017an proiektuei laguntza emateko estrategia hurrengo jardueren bitartez garatu zuen.

### 1. Diru-laguntza egitarauak

2017an BEAZ, S.A.U.-k erakunde laguntzaile legez parte hartu du kudeaketa fase guztietan hurrengo egitarauetan:

- Enpresa berritzaileen sorkuntza. CR
- Bizkaia Sortzailea. BC
- Berrikuntza eta inbertsio aureratuaren sustapena. 2I
- Berrikuntza, nazioartekotze eta inbertsiorako laguntza integrala. 3I.
- Nazioarteratzea: IT
- Gizarte ekintzailetza eta berrikuntza. GB

En lo que respecta al enfoque sectorial, se ha segmentado el público objetivo en cuatro grupos de mercado que permita una mayor especialización e interactuación con agentes intermedios expertos en cada uno de ellos.

Finalmente, y desde el punto de vista territorial, se trata de buscar una Bizkaia equilibrada, para lo que hay que tener en cuenta la realidad de cada zona y desplegar la estrategia de acercamiento oportuna en cada una de ellas, acompañando a los agentes comarcales que trabajan en las mismas.

Durante este año 2017 se va a seguir trabajando en cuatro objetivos estratégicos.

## Eje de actuación 1: Apoyo a las personas emprendedoras y empresas en sus objetivos de crecimiento

BEAZ, S.A.U., como principal agente colaborador de los programas de ayudas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial destinados a la creación y crecimiento de empresas innovadoras, ha desarrollado en 2017 su estrategia de acompañamiento a los proyectos a través de las siguientes actividades.

### 1. Programas de Ayudas

A lo largo del año 2017, BEAZ, S.A.U., ha participado como entidad colaboradora en todas las fases de gestión de los siguientes programas:

- Creación de empresas innovadoras. CR
- Bizkaia Creativa. BC
- Promoción de la innovación y la inversión avanzada. 2I
- Apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión. 3I
- Internacionalización. IT
- Emprendimiento e Innovación social. IS

- Artisautza AR

Guztira 766 proiektu aurkeztu dira eta horietatik 466 onartu dira. Aurreikuspenezko datuen arabera 1.455 lanpostu sortuko dituzte eta hiru urtean 355.727.456 euroko fakturazioa sortuko dute.

1.1. Proiektuen balorazioa

2017an baloratzeko prozedura bi fasetan egituratu da:

- Barruko ebaluaketaren fasea, BEAZ, S.A.U.-n.

- Sailarekin batera aztertzeko fasea

1.2. Proiektuen segimendua

Aurreko urteetan bezalaxe, enpresengandik gero eta hurbilago egoteko diru-laguntzak jaso dituzten enpresa guztietara gutxienez 2 bisitaldi egin zaizkie (segimendurako bitarteko bisitaldi bat eta beste bat proiektua amaitutakoan).

1.3. 2017ko programen emaitzak

a) Enpresa berritzaileen sorkuntza. CR

2017an 2016a arte enpresak sortzeko zeuden bi diru-laguntzak programa bakarrean bateratu ziren (Enpresa proiektuen garapena A1 eta enpresen sorkuntza A2).

167 enpresa proiektu aurkeztu dira eta horietatik 109 onartu dira, onespenaren portzentajea %65ekoa izanik.

Onartutako 109 proiektuetatik 59 2017. urtean sortutako enpresei dagozkie eta horrek esan nahi du %78ko gehikuntza nabarmena dagoela 2016. urtean sortutako 33 enpresen aldean eta 2012-2016 bitartean batez beste sortutako 38en aldean. 59 proiektuetan ez dira kontuan hartu Bizkaia Sortzailea programa sektorialean sortutako enpresak (6 enpresa berri).

- Artesanía. AR

Se han presentado un total de 766 proyectos, de los cuales se han aprobado 466, que según sus datos previsionales, alcanzarán un empleo de 1.455 personas y una facturación de 355.727.456 euros a tres años.

1.1. Valoración de los proyectos

Durante el año 2017 el procedimiento de valoración se ha articulado en dos fases:

- Fase de evaluación interna en BEAZ, S.A.U.

- Fase de contraste con el Departamento

1.2. Seguimiento de los proyectos

Al igual que en años anteriores, con el objetivo de estar cada vez más cerca de las empresas, como mínimo se han realizado dos visitas (una visita intermedia de seguimiento y otra final de cierre de proyecto) a todas las empresas beneficiarias de las ayudas.

1.3. Resultados programas 2017

a) Creación de empresas innovadoras. CR

En 2017 se han unificado en un mismo programa las dos ayudas de creación de empresas que existían hasta el año 2016 (Desarrollo de proyectos empresariales A1 y creación de empresas A2).

Se han presentado 167 proyectos empresariales únicos de los cuales se han aprobado 109, con un porcentaje de aprobación del 65%.

De los 109 proyectos aprobados, 59 corresponden a empresas creadas en este año 2017, lo que implica un incremento muy sustancial del 78% frente a las 33 empresas creadas en el año 2016 y las 38 de media en el periodo 2012-2016. En los 59 proyectos no se han tenido en cuenta las empresas creadas en el programa sectorial Bizkaia Creativa (6 nuevas empresas).

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

Industria proiektuak eta lotutako zerbitzuak elkarrekin finantzatzeko SPRIren Ekintzaile programarekiko bateratzea gauzatuta dago. Proiektuok balioesteko eta onesteko baterako mahaia dago eta 2017. urtean 47 proiektu finantzatu dira elkarrekin (41 BEAZ, S.A.U. + 6 BIC Bizkaia Ezkerraldea).

La integración con el programa Ekintzaile de SPRI para la cofinanciación de proyectos industriales y servicios conexos es una realidad. Existe una mesa conjunta para la valoración y aprobación de los mismos y este año 2017 se han cofinanciado 47 (41 BEAZ, S.A.U.+ 6 BIC Bizkaia Ezkerraldea).

b) Bizkaia Sortzailea. CR

b) Bizkaia Creativa. CR

36 eskaeratatik 24 espediente onartu dira eta datuak aurreko urtekoaren oso antzekoak dira, orduan 35 eskaeratatik 25 proiektu onartu baitziren. Onespen-ratioan gutxitze arina ohar daiteke, 2016. urteko %71tik 2017ko %67ra.

Se han aprobado 24 expedientes de 36 solitudes, datos muy similares a los del año anterior, donde se aprobaron 25 proyectos de 35 solicitudes. Se puede apreciar una ligera disminución en el ratio de aprobación del 71% del año 2016 al 67% de este año 2017.

Hona hemen eskaeren banaketa sektoreen arabera: 7 bideojokoetakoak (6 lagunduta), 5 ikus-entzunezkoetan (4 lagunduta), 6 industria diseinukoak (3 lagunduta) eta 17 modakoak (11 lagunduta). Onartutako proiektuen gutxitze arina ohar daiteke modaren sektorean (14 proiektu onartuta 2016an) eta gehikuntza industria sektorean (2016an 4 eskaeratatik proiektu bat onartu zen).

La distribución sectorial de las solicitudes ha sido la siguiente: 7 de videojuegos (6 apoyados), 5 de audiovisuales (4 apoyados); 6 de diseño industrial (3 apoyados) y 17 de moda (11 apoyados). Se puede observar una ligera disminución de los proyectos aprobados en el sector moda (14 proyectos aprobados en 2016) y un incremento en los proyectos del sector industrial (en 2016 se aprobó 1 proyecto de 4 solicitudes).

Aurreko urteetan bezala, onuradunen artean egon dira sektoreko enpresak edota profesionalak biltzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeak. Horren emaitza izan da elkarte sektorialen bost proiektu onartu direla: moda, bideo-jokoak, ikus-entzunezkoak, diseinua eta BIDC).

Al igual que años anteriores, se han mantenido como beneficiarias a Entidades sin ánimo de lucro, que agrupan empresas y/o profesionales del sector, con un resultado de cinco proyectos de asociaciones sectoriales aprobados: moda, videojuegos, audiovisual, diseño y BIDC.

c) Berrikuntza eta inbertsio aurreratuaren sustapena. 2I

c) Promoción de la innovación y la inversión avanzada. 2I

2017ko ekitaldian dekretu batean bateratu dira: produktu/prozesuan berritzeko programa eta AFIPYME

Durante este ejercicio 2017, se han unificado en un decreto: el programa de innovación en producto/proceso y AFIPYME.

Proiektuak egiteko 270 eskaera jaso dira eta onespen-ratioa %61ekoa da (166 proiektu onartuta).

En este contexto, se han recibido 270 solicitudes de proyectos con un ratio de aprobación del 61% ( 166 proyectos aprobados)

d) Berrikuntza, nazioartekotze eta inbertsiorako laguntza integrala.3I

Programa orokor honen bigarren urtea da eta haren helburua enpresen lehiakortasuna bultzatzea da, hiru gaitan: berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea. Plantillan 250 pertsona arte dauzkaten enpresa proiektuetarako da, lanpostuen sorkuntzan eta fakturazioan inpaktu handia izango dutenak eta gutxienez lehen aipatutako hiru hazkunde-tresnetariko bitan dihardutenak.

Aurkeztutako 46 proiektuetatik 15 onartu dira eta onespen-ratioa %33koa da, aurreko urteko %23aren aldean (aurkeztutako 52 proiektuetatik 12).

e) Nazioarteratzea. IT

Aurkeztu diren 148 eskaeretatik 71 proiektu onartu dira. Aurreko urtean, aldiz, aurkeztu ziren 142 eskaeretatik 113 onetsi ziren eta onartutako proiektuen portzentajea gutxitu egin da, 2016ko %80tik 2017ko %48ra igaroz. Onespen-portzentajearen gutxipena batez ere aurrekontu-zuzkidura %44 txikiagoa izan delako gertatu da.

f) Gizarte-berrikuntza. IS

2017an aurkeztutako 20 proiektuetatik 10 lagundu dira; 7 sozialki berritzaileak diren proiektuen atalean eta 3 enpresa berrienean. Kopuruak 2016. urtekoak baino txikiagoak izan dira, izan ere %35 eskaera gutxiago egon dira eta lagundutako proiektuak %50 gutxiago izan dira.

g) Artisautza. AR

2017. urtean artisau edo artisautza enpresen 67 proposamen finantzatu dira eta 5 ekimen elkarteei dagokien atalean. 2016. urteko antzeko kopuruak.

d) Apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión. 3I

Es el segundo año de este programa integral que busca impulsar la competitividad a través de la innovación, inversión e internacionalización y que va dirigido a empresas de hasta 250 personas en plantilla, con alto impacto en la creación de empleo y facturación, y que operen en al menos dos de las tres palancas del crecimiento antes mencionadas.

Se han aprobado 15 proyectos de 46 presentados con un ratio de aprobación del 33% frente al 23% del año anterior (12 proyectos de los 52 presentados).

e) Internacionalización. IT

Se han aprobado 71 proyectos de 148 solicitudes presentadas, frente a unas cifras del año anterior de 113 proyectos aprobados de 142 solicitudes, habiendo disminuido el porcentaje de proyectos aprobados pasando de un 80% en el 2016 a un 48 % en el 2017. Esta disminución en el porcentaje de aprobación se debe principalmente a que la dotación presupuestaría ha sido un 44% inferior.

f) Innovación Social. IS

Este año 2017 se han apoyado 10 de los 20 proyectos presentados; 7 en el capítulo de nuevos proyectos socialmente innovadores y 3 en el de nuevas empresas. Las cifras han sido inferiores a las del año 2016, con un 35% menos de solicitudes y un 50% inferior de proyectos apoyados.

g) Artesanía. AR

Durante 2017 se han financiado 67 propuestas de personas artesanas/empresas de artesanía y 5 iniciativas en el capítulo de asociaciones. Cifras similares a las de 2016.

## 2. Zerbitzuak

Azken urteotan BEAZ, S.A.U.-k Bizkaiko ekintzaileei eta enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkie Bizkaiko enpresen sortze, hazkundeetan finkatze prozesuak bizkortzen ahalegintzeko.

2.1. Kalifikazio txostenak zerga kenkariak lortzeko.

Zerbitzu honen barruan BEAZ, S.A.U.-k zerga ondorioetarako kalifikazio-txostenak egiten ditu sozietateen gaineko zergan kenkariak lortzeko. Une honetan bi txosten-mota ematen ari gara:

2.1. 1. Kalifikazioaren txosten teknikoa zerga ondorioetarako, berrikuntza teknologikoaren zioz egindako proiektuetarako.

2017. urtean zerga ondorioetarako kalifikazio txostenak prestatzen jarraitu da, sozietateen gaineko zergan teknologia berrikuntzaren ziozko kenkariak aplikatzeko.

2016.eko zerga-ekitaldiaren 133 enpresaren 169 espediente aurkeztu dira eta exekutatutako gastua 20,7 milioi eurokoa da. Aurreko urtearekin alderatuta zifrok %42ko gehikuntza dakarte espediente kopuruan.

Aurkeztutako espedienteak aztertu eta gero 123 (%73) positiboki kalifikatu dira. Berrikuntza teknologikoa duten proiektuekin bat zetorrelako aurkeztutako gastua 10 milioi euro baino gehiagokoa izan da.

2.1..2. Zerga kenkariak lortzeko kalifikazioaren aurretiazko txosten teknikoa, finantzatzailea bilatzeko I+G+b proiektuetarako.

5/2016 foru dekretua onartu ondoren 64 bis artikulu berria erantsi da Sozietateen gaineko Zergaren foru Arauan eta baimena ematen da I-G-b proiektuak finantzatzen dituzten antolakundeak kenkari honetan onura daitezen.

## 2. Servicios

A lo largo de estos últimos años, BEAZ, S.A.U. ofrece a las personas emprendedoras y empresas de Bizkaia servicios que tratan de acelerar los procesos de creación, crecimiento y consolidación de las empresas de Bizkaia.

2.1. Informes de calificación a efectos de deducciones fiscales.

Dentro de este servicio, BEAZ S.A.U. emite informes de calificación a efectos fiscales para las deducciones en el impuesto de sociedades. Actualmente se están emitiendo dos tipos de informes:

2.1.1. Informe técnico de calificación a efectos fiscales para proyectos ejecutados por innovación tecnológica.

En el año 2017 se ha continuado con la labor de emisión de informes de calificación a efectos fiscales para la aplicación de deducción por innovación tecnológica en el Impuesto de Sociedades.

Se han presentado 169 expedientes del ejercicio fiscal 2016 de 133 empresas con un gasto ejecutado de 20,7 millones de euros. Frente al año anterior, estas cifras suponen un aumento del 42% en el número de expedientes.

Tras el análisis de los expedientes, se han calificado positivamente 123 (73%), con un gasto aceptado como coherente de los proyectos considerados como innovación tecnológica que supera los 10 millones de euros.

2.1.2. Informe técnico de calificación a efectos fiscales previo para proyectos de I+D+i para búsqueda de financiador.

Con la aprobación del decreto foral 5/2016 por el que se añade un nuevo artículo 64 bis a la Norma foral del Impuesto de Sociedades, se permite que sean las organizaciones financiadoras de los proyectos de I+D+i las que

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

se acojan a esta deducción.

BEAZ, S.A.U. I+G+b proiektuak kalifikatzeko proiektua egin aurretiko txostenak prestatzen hasi da. 2017. urtean 14 enpresaren 17 espediente aurkeztu ziren eta aurrekontua guztira 17 milioi eurokoa izan zen.

BEAZ, S.A.U. ha comenzado a elaborar informes previos a la ejecución de proyecto para calificar proyectos de I+D+i. A lo largo de este año 2017, se han presentado 17 expedientes de 14 empresas con un presupuesto de 17 millones de Euros.

Espedienteak aztertu ondoren positiboki kalifikatu dira 17 proiektuak eta onartutako aurrekontua 13,5 milioi eurokoa da (aurkeztutakoaren %80,7). Aurrekontuaren 79,6 I+G jarduera bezala kalifikatu da eta gainerako %20,4a berrikuntza teknologikoko jarduera bezala.

Tras el análisis de los expedientes se han calificado positivamente los 17 proyectos con un presupuesto aceptado de 13,5 millones de euros (80,7 % de lo presentado). El 79,6 % del presupuesto ha sido calificado como actividades de I+D y el 20,4 % restante como actividades de innovación tecnológica.

2.2. Barne-ekintzailetza

2017an BEAZ, S.A.U.-k, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Sailak abian jarri duen barne-ekintzailetza bultzatzeko planaren hirugarren edizioaren barruan, zerbitzua Bizkaiko Lurraldean dinamizatzen esku hartu du.

Sentikortzeko eta gaitzeko bilerak antolatu dira eta 42 enpresak parte hartu dute; ondorioz barne-ekintzailetzako 24 proiektu berri sortu dira 2016ko 11ren aldean. Zifrok erakusten dute proiektuok %120ko gehikuntza izan dutela

2.2. Intraemprendimiento

Este año 2017 BEAZ, S.A.U. ha participado como organización dinamizadora en el territorio de Bizkaia en la tercera edición del plan de impulso al intraemprendimiento que ha puesto en marcha el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco.

Se han organizado encuentros de sensibilización y capacitación a los que han asistido 42 empresas, con un resultado de 24 nuevos proyectos de intraemprendimiento aprobados, frente a los 11 del año 2016. Estas cifras suponen un incremento de este tipo de proyectos de un 120%.

2.3. Berrikuntza irekia

2017. urtean abian jarri dira zenbait ekimen kolaboratibo enpresa erreferente, ETE eta enpresa sortu berrien artean harremanak indartzeko.

2.3.Innovación abierta

A lo largo de este año 2017, se han puesto en marcha distintas iniciativas colaborativas con el objetivo de favorecer la relación entre empresas referentes, pymes y empresas de reciente creación.

2.3.1. Bizkaia Open Future

Joan den urtean abian jarri zen Bizkaia Open Future programa. Helburua da startup, ETE eta enpresa eragileei laguntza ematea 4.0 industriari lotutako teknologietarantz derrigorrez egin behar den bidean.

2.3.1. Bizkaia Open Future

El año pasado se puso en marcha el programa Bizkaia Open Future, con el objetivo de apoyar a startups, pymes y empresas tractoras en la transición necesaria hacia tecnologías vinculadas con la industria 4. 0.

2017an BEAZ, S.A.U.-k Bizkaiko lau enpresa erreferentek ezarritako erronken zabalkunde eta dinamizazioan parte hartu zuen. Erronka horiek konpontzeko 123 enpresa aurkeztu dira; horietatik 23 azken fasera igaro dira eta horietatik 4 irabazleak izan dira.

Este año 2017 BEAZ, S.A.U., ha colaborado en la difusión y dinamización de los retos que han planteado cuatro empresas referentes de Bizkaia. Para la solución de dichos retos, se han presentado 123 empresas, de las cuales 23 han pasado a la fase final, y 4 de ellas se han convertido en los ganadoras.

2.3.2. Bind 4.0

Ekintzaileen Jarduerak Bultzatzeko Erakundearteko Planaren barruan kokaturik, BIND 4.0 StartUP! Basque Industry Accelerator Program 4.0 ekintza Eusko Jaurlaritzak eta SPRIk bultzatzen dute, foru Aldundien eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako BICen laguntzarekin. Ekimen publiko-pribatu honek konbinatu egiten du enpresa eragileentzat talentua bereganatzea eta 4.0 industriaren arloan startupak bizkortzea eta haren helburu nagusia euskal industria eta ekintzailetza ekosistema indartzea da, 24 asteko iraupena daukan programa aitzindari baten bidez.

2.3.2. Bind 4.0

Enmarcada en el Plan Interinstitucional de Apoyo a la Actividad Emprendedora, BIND 4.0 StartUP! Basque Industry Accelerator Program 4.0 es una acción impulsada por el Gobierno Vasco y la SPRI, con la colaboración de las Diputaciones forales y los BICs de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Es una iniciativa público-privada que combina la captación de talento para las empresas tractoras y la aceleración de startups en el ámbito de la industria 4.0 y cuyo objetivo principal es fortalecer el ecosistema industrial y emprendedor vasco a través de un programa pionero de 24 semanas de duración.

2017. urtean BEAZ, S.A.U.-k aktiboki parte hartu du, 2016ko deialdian aukeratu ziren 7 proiektuen segimendua eginez.

En este año 2017, BEAZ, S.A.U. ha participado activamente con el seguimiento de los 7 proyectos que se seleccionaron en la convocatoria 2016.

Halaber, bigarren deialdia zabaltzen eta abian jartzen ere lagundu du; Bizkaiko 14 enpresa eragilek parte hartu dute eta beren beharrizanak partekatu dituzte nazioarteko 385 enpresarekin. Emaitzaren ondorioz 19 proiektu gauzatu dira Bizkaiko enpresa eragile eta startupen artean eta, beste alde batetik, Bizkaiko startupen 7 proiektu enpresa eragileekin.

Y también ha colaborado en la difusión y lanzamiento de la segunda convocatoria en la que han participado 14 empresas tractoras de Bizkaia que han compartido sus necesidades con 385 empresas internacionales. El resultado ha sido la concreción de 19 proyectos entre empresas tractoras de Bizkaia y startups y por otro lado 7 proyectos de startups de Bizkaia con empresas tractoras.

2.3.3. BIOK!

Ekimen hau BEAZ, S.A.U.-k 2017an garatu du Bizkaiko enpresa esanguratsuak, edozein sektore edo tamainatakoak, ekintzaile, startup, ETE, zentro teknologiko edo unibertsitateekin harremanetan jartzeko, erronka teknologiko baten bidez.

2.3.3. BIOK!

Es una iniciativa que BEAZ, S.A.U. ha desarrollado en 2017 para poner en contacto a empresas relevantes de Bizkaia, de cualquier sector o tamaño, con personas emprendedoras, startups, pymes, centros tecnológicos o

Lehenengo urtean Bizkaiko enpresa esanguratsu batek parte hartu du ekimenean. 14 antolakunde aurkeztu ziren, horietatik 3 finalistak izan dira eta bat erronkaren irabazlea.

2.3.4. Berrikuntza irekiko beste ekimen batzuk

2017ko ekitaldian berrikuntza irekiko hainbat eredutan lan egin dugu:

- **Ideiak Pil Pilean:** Aukerak sortzeko lantegi honek gastronomia eta elikadura arloko beharrizanak sormen-industrien gaitasunekin konektatzen ditu. Lehenengo edizioan 2 erronka aurkeztu dira eta 23 enpresa aurkeztu dira; horietatik 5 finalistak izan ziren.

- **European Study Group with Industry**-ren 131. edizioa. Foro hau lehenengo aldiz burutu da Euskadin enpresa eta matematikarien artean lankidetza-zubiak sortzeko, industria erronkei erantzuna eman ahal izateko. Lehenengo edizio honetan Bizkaiko 3 enpresa erreferentek esku hartu dute, autogintza, komunikazio eta elikagaien banaketa sektoreetakoak.

- **Berrikuntza irekia hornitzaileekin**. Sektore elektrikoko Bizkaiko enpresa eragile batek, BEAZ, S.A.U.-rekin lankidetzan, abian jarri du programa bat bere hornitzaileei produktu eta zerbitzu berrien garapen-proiektuen bizkortzea finantzatzeko. Ekimen hausozietateen gaineko zergaren 11/2013 foru arauko 64 bis artikuluan oinarritzen da. Bizkaiko 4 enpresa izan dira aukeratuak programaz onura daitezen.

universidades a través de un reto tecnológico.

Durante este primer año ha participado en la iniciativa una empresa relevante de Bizkaia, al que se han presentado 14 organizaciones, 3 de las cuales han sido finalistas y una ganadora del reto.

2.3.4. Otras iniciativas de innovación abierta

Durante este ejercicio 2017 se ha trabajado en distintos modelos de innovación abierta:

- **Ideiak Pil Pilean:** Taller de creación de oportunidades que conecta las necesidades y retos del mundo de la gastronomía y de la alimentación con las capacidades de las industrias creativas. En una primera edición se han presentado dos retos a los que se han presentado 23 empresas y de las cuales 5 fueron finalistas.

- 131 edición del **European Study Group with Industry.** Foro que se celebra en Euskadi por primera vez con el fin de generar puentes de colaboración entre empresas y matemáticos para dar respuesta a retos industriales. En esta primera edición participan 3 empresas referentes de Bizkaia de los sectores de automoción, comunicaciones y distribución alimentaria.

- **Innovación abierta con proveedores**. Una empresa tractora de Bizkaia del sector eléctrico, en colaboración con BEAZ, S.A.U., lanza un programa para financiar a sus proveedores la aceleración de proyectos de desarrollo de nuevos productos y servicios. Iniciativa que se sustenta en el artículo 64 bis de la norma foral 11/2013 del impuesto de sociedades. 4 empresas de Bizkaia son seleccionadas como posibles beneficiarias del programa.

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

- **Day one 2017** jardunaldia. Egoitza Frantzian daukan farmaziagintzako enpresa multinazional batek Bic Bizkaian bere berrikuntza irekiko programa aurkeztu zuen, biofarmazia eta osasun sektoreko startupen proiektu berritzaileak bilatzeko. Europa osoan aukeratutako 30 europar proiektuetatik 3 Bizkaikoak dira.

2.4. Bizkaia mentoring network

Zerbitzu hau abian jarri zenetik bigarren urtean 48 mentorek osatzen duten sarea lortu da, aurreko urtean baino 13 gehiago. 17 proiektu berri aztertu dira eta horietatik 7k mentoring prozesua gainditu dute..

2.5. Enpresa proiektuak bizkortzea

2017an BEAZ, S.A.U.-n bizkortze-zerbitzu hau egon da kanpoko urgazpen teknikoarekin.

ON BIZKAIA Saria jaso zuten 5 enpresez gain, beste 6 enpresak ere enpresak bizkortzeko zerbitzu honetan parte hartu dute. Orain arte aztertu diren emaitzak oso positiboak dira; fakturazioak %60ko gehikuntza izan du eta lanpostuak batez beste %26ª handitu dira.

2.6. MassChallenge

BEAZ, S.A.U., 2017ko MassChallenge-Biscay lehiaketaren antolakundean egon zen bigarren urtez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eta munduko enpresa-bizkortzaile handiena den MassChallengek sinatutako hitzarmenaren ondorioz.

Deialdia amaitutakoan bertoko 20 startup aukeratu ziren eta horiek elkarrekin lehiatu ziren haietako hamabi hautatzeko. Gero enpresa hauek lan trinkoko lantegi batean parte hartu zuten Bostonen, MassChallengeren egoitza nagusian eta bizkorgailuaren baliabide guztiak izan zituzten eskura: mentorizazioa, workshopetan parte hartzea, bilerak inbertsiogileekin eta munduko

- **Jornada day one 2017**. Empresa multinacional farmacéutica con sede en Francia presenta en el Bic Bizkaia su programa de innovación abierta en la que se buscan proyectos innovadores de startups biofarmaceuticas y del sector salud. De los 30 proyectos europeos seleccionados por toda Europa, tres son de Bizkaia.

2.4. Bizkaia mentoring network

En este segundo año de andadura del servicio, se ha conseguido contar con una red de 48 personas mentoras, 13 más que el año anterior. Se han analizado 17 proyectos nuevos, de los cuales 7 han pasado al proceso de mentoring.

2.5. Aceleración de proyectos empresariales

En 2017 se ha mantenido en BEAZ, S.A.U. este servicio de aceleración con asistencia técnica externa.

Además de las 5 empresas premiadas con el Premio ON BIZKAIA, otras 6 empresas han participado en este servicio de aceleración. Los resultados analizados hasta la fecha son muy positivos, con incrementos de facturación del 60% y aumento medio de empleo del 26%.

2.6. MassChallenge

BEAZ, S.A.U., forma parte por segundo año de la organización de la competición MassChallenge-Biscay 2017, en virtud del convenio suscrito entre el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y MassChallenge, la mayor aceleradora de empresas del mundo.

Tras el cierre de la convocatoria se realizó una primera selección de 20 startups locales que competieron entre ellas para proceder a una selección de 12. Estas empresas participaron en Boston en un taller de trabajo intensivo en la sede central de MassChallenge, donde tuvieron acceso a todos los recursos de la aceleradora: mentorización, participación en workshops,

enpresa erreferenteetara heltzeko aukera.

Egonaldia egin ondoren startup hauetako 6k munduko lehiaketarako hautatuak izatea eta haietako bat aukeratua zian zen inkubagailuan 4 hilabeteko azken egonaldia egiteko

2.7. CIC – Cambridge

2016an, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak akordioa lortu zuen Massachussets-eko beste erakunde batekin, CIC-ekin hain zuzen (Cambridge Innovation Center). Hitzarmen horren bidez 24 startupek 6 hilabeteko egonaldia egin ahalko dute CICen MassGlobal Partners-en tutoretzapean.

BEAZ, S.A.U.-k, aurreko urtean bezala, ekimen horretan parte hartuko duten enpresak hedatu, aukeratu eta koordinatzeaz arduratu da. 2017an Bostonera 7 enpresa joan dira, 2016ko egonaldia amaitu dutenei batu behar zaizkienak, eta 2018. urtean joateko beste 4 enpresa hautatu ziren.

2.8. Dirulaguntza-mapa

BEAZ, S.A.U.-ko teknikariei laguntzean eta aholkularitza zerbitzua eskaintzean datza, enpresentzat errazagoa izan dadin beste erakunde batzuek ematen dituzten diru-laguntzen programetara sarbidea izatea.

2017an jardunaldi bakarra antolatu da CDTI, ENISA, ICEX eta SPRIko aditu teknikoekin eta guztira 77 enpresak parte hartu dute. Bitariko 53 bilera egin dira 18 enpresarekin eta horietatik soilik bost proiektu aurkeztu dira; horietatik hiru oraindik erabaki gabe daude eta bik 646.719 euroko finantzaketa lortu dute.

2.9. EEN Sarea

BEAZ, S.A.U.-k Enterprise Europe Network Sarean parte hartzen du Basque Nodeko kide aktibo legez.

encuentros con inversores y acceso a referentes empresariales de carácter mundial.

Tras la estancia, 6 de estas startups lograron ser seleccionadas para el concurso mundial, y una de ellas fue seleccionada para acceder a la estancia final de 4 meses en la incubadora.

2.7. CIC – Cambridge

Durante el 2016 la Diputación Foral de Bizkaia firma un acuerdo con otra entidad de Massachussets, CIC (Cambridge Innovation Center) para que en dos años 24 startups puedan acceder a una estancia de 6 meses en el CiC bajo la tutoría de MassGlobal Partners.

Así, BEAZ, S.A.U., al igual que en el año anterior, se encarga de la difusión, selección y coordinación de las empresas que van a participar en esta iniciativa. Este año 2017 acuden a Boston 7 empresas, a sumar a las 4 que finalizan su estancia de 2016, y seleccionan otras 4 empresas para acudir durante el año 2018.

2.8. Mapa de ayudas

Consiste en ayuda y asesoramiento al personal técnico de BEAZ, S.A.U., para facilitar a las empresas el acceso a los programas de subvenciones de otras entidades.

En 2017 se ha organizado 1 única jornada con personal experto técnico de CDTI, ENISA, ICEX y SPRI con una asistencia de 77 empresas. Se han mantenido 53 reuniones bilaterales con 18 empresas, de las que solo se han presentado cinco proyectos, tres de ellos continúan pendientes de resolución y dos ellos han conseguido una financiación de 646.719 euros.

2.9. Red EEN

BEAZ, S.A.U., participa en la Red Enterprise Europe Network como miembro activo del Basque Node.

2017an guztira 60 enpresa onuratu dira eskainitako laguntza-zerbitzuez. Horien barruan dago profil teknologiko eta komertzialak prestatzea, interes-adierazpenak bilatzea eta nazioarteko lankidetza-hitzarmenak lortzeko eta prestatzeko bitartekari-lanak egitea.

A lo largo de 2017, hasta un total de 60 empresas han sido beneficiarias de los servicios de apoyo ofertados, que incluyen elaboración de perfiles tecnológicos y comerciales, búsquedas de expresiones de interés e intermediación para el logro y preparación de acuerdos de colaboración de carácter internacional.

2.10. EAG zerbitzua (Ekintzaileari Arreta emateko Gunea)

2.10. Servicio PAE (Punto de Atención a la persona emprendedora)

BEAZ, S.A.U., 2013. urtean EAG bihurtu zen, batez ere S.L.-ko era juridikoa duten enpresak eraketarakoan izapidetze telematikoa egiteko laguntza emanez.

BEAZ, S.A.U., se convertía en 2013 en PAE, centrándose fundamentalmente en el apoyo a la tramitación telemática de constitución de empresas cuya forma jurídica es la S.L.

Urtean zehar 49 enpresa proiektu hurbildu dira guztira zerbitzu honetaz jakitera, hurrengo emaitzekin:

- Aholkularitza: 20
- Egindako eraketak eta bidean daudenak: 29

A lo largo del año, se han acercado un total de 49 proyectos empresariales a interesarse por este servicio con los siguientes resultados:

- Asesoramientos: 20
- Constitución realizadas y en curso: 29

2.11. Prestaekin gaikuntza

2.11. Capacitación Prestaekin

2017an ez da gaikuntza modulurik eman, enpresak sortzeko diru-laguntza programak ebazteko datetan izandako atzerapenaren ondorioz (dekretu guztiek kontsulta publikoaren izapidea igaro behar zutelako sortu zen egoera hau); izan ere zerbitzu hau emateko helburuko jendea hor sortzen da.

Bigarren edizioa 2018ko urtarrilean hasiko da; 7 moduluz osatuta egongo da eta trebakuntza eredu teoriko-praktiko berria eta taldekako tutoretza egongo da.

Durante el año 2017 no se ha impartido ningún módulo de capacitación debido al retraso en las fechas de resolución de los programas de ayuda de creación de empresas (que se propició por la necesidad de que todos los decretos tenían que pasar por el trámite de consulta pública) y de donde surge el público objetivo para ofrecer dicho servicio.

La segunda edición dará comienzo en enero de 2018, compuesta por 7 módulos y con un nuevo modelo formativo teórico práctico y de tutoría grupal.

2.12. BEAZko guneak

2.12. Espacios BEAZ

2017an, BEAZ, S.A.U.-k enpresa eta ekintzaileen eskura jartzen dituen 95 ekitaldi egin dira, 35 erakundek antolatuta (horietako asko sormen-sektoreek bultzatuta). Guztira 2194 pertsonak

A lo largo de 2017, en los espacios que BEAZ, S.A.U. pone a disposición de las empresas y personas emprendedoras, se han celebrado 95 eventos organizados por 35 entidades (muchas de

parte hartu dute (1364 emakume eta 830 gizonezko).

Gainera, 2136 pertsona baino gehiagok parte hartu dute gune hauetan enpresen artean edo BEAZ, S.A.U.-ko langileekin egindako bileretan.

3. Inkubagailuen kudeaketa

BEAZ, S.A.U.-k zenbait egoitzatan dauzka bere enpresa inkubagailuak eta laguntza ematen die, negozio berriak abian jartzerakoan funtsezko balio erantsia ematen baitute.

3.1. BIC Bizkaia

BIC Bizkaia inkubagailua teknologia bio-makro-nano, manufaktura aurreratu eta teknologia garbietan espezializatuta dago. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Teknologia Parkeak bultzatzen dute eta haren jarduerak BEAZ, S.A.U.-k kudeatzen ditu.

Inkubagailuak 6000 $m^2$ ditu bi solairutan banatuta. Beheko solairuan 13 modulu indibidual eta ekintzailetzarako eremu bat edukitzeaz gain, bilerak egiteko gelak eta manufaktura aurreratuko eta teknologia garbidun jarduerak egiteko prestatutako tailerrak ere badauzka. Lehenengo solairuan 18 modulu indibidual eta bio, mikro eta nanoteknologiaren inguruko jarduerak egiteko prestatutako laborategiak dituen 200 $m^2$-tik gorako eremua dauzka.

Beren hirugarren jardun-urtean, 2017ko ekitaldia amaitutakoan, 23 enpresa zeuden bertan, hots, azaleraren % 90eko okupazioa. 303 lanpostu daude enpresetan eta 23 milioi euro inguruko fakturazioa sortzen dute.

ellas impulsadas por los sectores creativos), a los que han asistido 2194 personas (1364 mujeres y 830 hombres).

Además, han participado más de 2136 personas en reuniones entre empresas o reuniones con personal de BEAZ, S.A.U. que se han celebrado en estas mismas localizaciones.

3. Gestión de incubadoras

BEAZ, S.A.U., cuenta con diversas sedes donde se localizan las incubadoras de empresas en las que colabora y que suponen un valor añadido fundamental en la puesta en marcha de los nuevos negocios.

3.1. BIC Bizkaia

BIC Bizkaia es la incubadora especializada en tecnologías bio-micro-nano, manufactura avanzada y tecnologías limpias que impulsan el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Parque Tecnológico de Bizkaia y cuya actividad es gestionada por BEAZ, S.A.U.

La incubadora cuenta con 6000 $m^2$ en dos plantas. En la planta baja, además de 13 módulos individuales y un área para el emprendimiento, cuenta salas de reuniones y talleres preparados para la realización de actividades de manufactura avanzada y tecnologías limpias. En la primera planta cuenta con 18 módulos individuales y una zona de más de 200 $m^2$ de laboratorios dotados para para el ejercicio de actividades relaciones con la bio, micro y nanotecnología.

En su tercer año de funcionamiento, a cierre de ejercicio 2017, se encuentran ubicadas 23 empresas, lo que supone una ocupación en superficie del 90%. El empleo de las mismas asciende a 303 y generan una facturación de unos 23 millones de euros.

**Beaz, N.B.A.**
***Beaz, S.A.U.***

2017an inkubagailu espezializatu honetan abian jarritako mugarri nagusiak izan dira landareak hazteko gela abian jartzea, beheko solairuko fabrikazio aurreratuko lantegi komunak abian jartzea eta Bizkaiko erreferentziako osasun-erakunde batekin lankidetza 3D inprimaketa baliozkotzeko SUDOE Europako proiektuan kolaboratzea izan dira.

Los hitos más relevantes puestos en marcha a lo largo de 2017 en esta incubadora especializada han sido la instalación y puesta en marcha de la cámara de cultivo vegetal, la puesta en marcha de los talleres comunes de fabricación avanzada de la planta baja y la colaboración con una entidad sanitaria de referencia de Bizkaia en un proyecto Europeo SUDOE para la validación de la impresión 3D en servicios hospitalarios.

3.2. ZITEK proiektua

3.2. Proyecto ZITEK

EHUrekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzako Sailarekin batera kudeatzen den inkubagailu sarea da.

Se trata de la red de incubadoras que se gestionan junto con la UPV-EHU y el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Inkubagailu bana dauka Portugalete eta Leioako campusetan eta Ingeniari Eskolan.

Cuenta con una incubadora en los campus de Portugalete, Leioa y la Escuela de Ingenieros.

Gaur egun guztira 21 enpresa daude bertan kokatuta (%75eko okupazioa), atxikitako langileria 57 lanpostukoa da eta fakturazioa guztira 2,8 milioi eurokoa da.

Se encuentran ubicadas en la actualidad un total de 21 empresas (75% de ocupación) con una plantilla agregada de 57 empleos y 2,8 millones de euros de total de facturación.

Ekintzailetza kultura bultzatzeko programaren barruan abian jarri dira 15 ekintza burutu dira, zenbait mintegi, jardunaldi, ikastaro eta sari barne.

Dentro de su programa de fomento de la cultura emprendedora, se han puesto en marcha 15 acciones, incluyendo diversos seminarios, jornadas cursos y premios.

3.3. DeustoKabi inkubagailua

3.3. Incubadora DeustoKabi

Deustuko Unibertsitatearekin batera kudeatutako inkubagailu hau unibertsitateko instalazioetan dago eta ia 500 m²-ko azalera dauka. Gaur egun bertan 15 enpresa daude kokatuta eta okupazioa %92koa da, 55 lanpostu eta 1,3 milioi euroko fakturazioa sortuz.

Esta incubadora, cogestionada con la Universidad de Deusto, y ubicada en sus propias instalaciones, cuenta con una superficie de casi 500 m², albergando en la actualidad a 15 empresas, con el 92% de ocupación, lo que propicia 55 empleos y 1,3 millones de euros de facturación.

2017an leku honetan 4 mintegi/jardunaldi antolatu dira finantza, marketin digital, ekintzailetza eta barne-ekintzailetzari buruz.

En 2017, se han organizado en este escenario 4 seminarios/jornadas sobre finanzas, marketing digital, emprendimiento e intraemprendimiento.

3.4. KBI Digital

KBI DIGITALek 747 $m^2$-ko azalera du, 5 solairutan banatuta. Matikoko Auzofactory-n kokatuta dago, Bilbon. Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duen ekimena da, Bilbao Ekintzaren eta BEAZ, S.A.U.-ren bitartez. Horiek arduratzen diren inkubagailuaren kudeaketa-lanetaz.

Inkubagailua IKTen eta eduki digitalen sektoreak garatzen dituzten enpresa-proiektuak hartzeko prestatuta dago. Gaur egun 15 enpresa daude bertan. Horiez gain, teknologia garatzen duten beste 3 profesional liberal ere badaude. Okupazioa %75ekoa da, 49 lanpostu daude eta 1,3 milioi euroko fakturazioa sortzen da.

Inkubagailu honen ekimen nagusiak eremu digitalean espezializatutako trebakuntza saioak eta proiektuak bizkortzea izan dira.

3.5. Design Kabi

Design Kabi negozioa zehazteko eta enpresen bideragarritasuna aztertzeko fasean dauden enpresa proiektuetarako inkubagailua da. BEAZ, S.A.U.-n dago kokatuta eta 200m2 baino gehiago dauzka 50 pertsonari lekua emateko.

2017an 8 proiektu inkubatu ziren eta 18 pertsona egon ziren bertan.

Azpimarratzekoa da aurten Design Kabin Play Station Camp-en lehenengo edizioa burutu dela. Helburua bideo-joko sektoreko startup berriak merkatura sartzen laguntzea da.

3.6. BIC Bizkaia Ezkerraldea

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duten BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailuaren helburu nagusia Ezkerralde eta Meatzaldean ekintzailetza-proiektu berriak bultzatzea da.

3.4. KBI Digital

KBI DIGITAL cuenta con 747 $m^2$, distribuidos en 5 plantas. Situada en el Auzofactory de Matiko en Bilbao, se trata de una iniciativa coparticipada por Ayuntamiento de Bilbao y Diputación Foral de Bizkaia, a través de Bilbao Ekintza y BEAZ, S.A.U., quienes ejercen la función de gestión de esta incubadora.

La incubadora está orientada a albergar proyectos empresariales y desarrolladores de los sectores TICs y de contenidos digitales. Actualmente cuenta con la presencia de 15 empresas además de otras 3 personas profesionales liberales, desarrolladoras de tecnología, con una ocupación de 75%. 49 empleos y 1,3 millones de euros de facturación.

Las principales iniciativas en esta incubadora han sido las sesiones de formación especializadas en el ámbito digital y la aceleración de proyectos.

3.5. Design Kabi

